

## **MUko hiru fakultatetan barne txapelketak hasi dira**

2008/11/06

Urtero bezala, data hauetarako MUko fakultateetan neguko barne txapelketak jarri ditu martxan Kirol Zerbitzuak. 2008-2009 ikasturterako jarduera ugari antolatu dira, besteak beste, areto futbola, saskibaloia 3x3, eskupilota, frontenisa, pala, tenisa, squasha, xakea, musa eta dardoak. Guztira, 10 jarduera ezberdinetara lehiatuko dira parte hartuko duten 300 ikasle inguruk eta fakultate bakoitzeko garaileek beraien artean neurtu beharko dituzte indarrak otsaila amaieran ospatuko den MU mailako txapelketan.

